*Zur Ta* Lur-Elgoibar taldea Espainiako areto futboleko txapeldunorde izan zen. Maila autonomikoan jokatzen duen taldeak, Talavera de la Reinan (Toledo) jokatutako finala luzapenean galdu zuen A Coruñako *Egasa* taldearen aurka.

BRONCES
GARITANO, S.A.
**BRONCES GARITANO, S.A.**
Urte Berri On guztioil
Olaso kalea, 15 . 20870 ELGOIBAR Tel: 943 74 41 25/74 41 26

**OIRSO TABERNI1**
**-EGUNEKO MENUFIK-**
**-LIIRUNBOTETRN-**
**Rabak • Olagarroa • Fritoak**
**-GOUEZ-**
**Menu ekonomikoak eta plater konbinatuak**
Olaso industrialdea, 15
Tel: 943 74 31 85
ORIEJTEG I H:
Astelehenelik ostiralera 7:80-22:30
Larunhatelan 9:11011k durrera

ITURRI
Taberna

ZUBACOR,S.L.
offlo,asa Oialvarai,/
Ibaitarte kalea, 11
Tel: 943 74 08 44 • Faxa: 943 74 26 66

# PROTAGONISTAK

u `Los Perez de Nochistlan" mariatxiak bisitan izan ziren Elgoibarren. Anatsaldean 12 lagunez osatutako talde mexikarrak kalejira egin zuen herriko kaleetan. Gauean. berriz, Herriko antzokira hurbildu zirenek, beraien kantuak lasai entzuteko parada izan zuten.

Ibon Arregi, 22 urteko elgoibartarrak, San Bartolome jaietako kartel lehiaketako lehen saria eskuratu zuen "Ikaroren Ikara" lanareki n .







Oihana Apellanizek eta Unai Arrietak Gipuzkoako eskubaloi jokalari onenen saria jaso zuten. Oihanak *Pagoaga-Elgoibar* taldean jokatzen du eta Unai, berriz, Eibarko *Arrate* taldean aritu ostean, Irungo Bidasoak fitxatu du. Etorkizun handia aurrikusi diote hegaleko postuan jokatzen duen gazteari.

Jabler Arriola, "Egi" harrijasotzaileak, Elgoibarko "San Bartolome I. Harrijasotze Txapelketa" irabazi zuen abuztuan. Aurretik, Mallabiko txapelketa batean hirugarrena izan zen. Lesio baten erruz, bi urtetan lehiatu gabe egon eta gero, aurten agertu da berriz ere plazara.



Xabier Elizburu, apaiz gazteak, uztailaren 3an eman zuen bere estreinako meza Elgoibarko Parrokian. Ekainaren 29an Donostiako Artzai Onaren elizan ordenatu zen, eta Bartzelonan Teologia ikasketak bukatu artean. Eibarko San Andres Parrokian etzongo da.


Talleres ALBE

qitto4a, 2„0 444444

PLANEATUAK-CRUSHING B1DEZ PERFILEN PLANEATUAK
BROTXATUAK-NONIUS GRABATUAK



HERRI ESKOLA

4 0

*Eguberri*
*eta Urte berri On!*

# 1RAILA

I RAI LA





*Karakate Mikologi Elkarteak* 25 urte bete ditu aurten. Hori dela-eta, zenbait ekintza berezi antolatu zituzten irailaren 26an. Bernabe Mugicak omenaldi berezia jaso zuen. Perretxikozale honi oroigarri bat eman zioten eta bere emazteak Iore sorta jaso zuen. Horrez gain, bere semeak aurreskua dantzatu zuen berarentzat. Urtero bezala, hutsik egin gabe, "Debarroko Haurrentzako Perretxiko L,ehiaketa" egin zen egun horretan. Aurtengoa XXV. aldia izan zen, elkartea sortu zenetik bailarako penetxiko lehiaketa antolatzen hasi baitziren Karakateko kideak.

Paulgo San Bizente kongregazioko mojek agur esan zioten Elgoibarri, I 32 urte, bertan egin ostean. San Lazaro egoitzan zeuden 4 mojek, irailaren 27an, Paulgo San Bizenteren eguna zela-eta, meza berezia izan zuten, eta bide batez despedida hunkigarria eskaini zieten eliztarrek.

**ibal-ando**

***Erretegia***

EGUBERRI ON DENOI!

Eskubideen plaza • Tel: 943 74 26 27

PINTXO HOTZAK, BEROAK
eta KAZUELATXOAK

ALDAPA TABERNA

Ondo pasa Gabon jaiak!

Santa Klara, 22
☎ 943 74 26 32

Tximak

ILEAPAINDEGIA - SOLARIUMa

Kalamua, 2 behea - Tel. 943 74 43 57 - ELGOIBAR

GABILONDO

TABAKO DENDA

*Gabon jai zoriontsuak!*

Errosario, 2 Tel: 943 74 16 38

# PROTAGONISTAK

u Elgoibarko Udaleko 6 ordezkari izan ziren Euskal Herriko Hautetsien Biltzanran. Irailaren 18an Bilbon izan zen nazio mailako udal ordezkarien bilkuran, Elgoibarko Udaletik, guztira 6 kargudun joan ziren. Gillermo Garate alkatea EAJ alderditik, Asier Zengotita, Izaskun Arozena, Jose Luis Ansola eta Bittori Guenaga EHtik eta Inazio Mugerza EAren izenean.

❑ Hiru elgoibartarrek Gipuzkoako Herriarteko Bertsolari Txapelketan parte hartu zuten. Txapelketa taldeka jokatu zen eta `Deba barrena' taldean hiru elgoibartar zeuden: Jabier Arrizabalaga "Ziarda" eta German Meabebasterretxea bertsolariak eta Agustin Irusta epailea. Talde hau lehenenengo kanporaketan kanpoan gelditu zen Azpeitiko taldearen aurka galdu ondoren.

J 70 lagun inguru bildu ziren irailaren 17an, presoen aldeko kontzentrazioan. Gipuzkoako Foru Aldundiak, bakea bultzatzeko eta presoen euskalheniratzea eskatzeko, kontzentrazioak deitu zituen herri ezberdinetan. Elgoibarko Udaleko Gobemu Batzordeak ere, Foru Aldundiaren deialdiarekin bat egin zuen eta horreia, 70 elgoibartar elkartu ziren Plaza Handian.

u 45 gazte elgoibartarrek hartu zuten sendotza irailaren I9an, San Bartolome Parrokian. Elizkizunean Jesusen aurrean fede katolikoa sendotu zuten neska-mutilek, beraien sinesmena konfirmatuz.



Jasone Osorok idazle berrientzako literatur sorkuntzarako beka bat irabazi zuen. Beasaingo Udalak, CAF-ek eta Elkarlanean argitalebteak antolatutako *lgartza* Sarian akzesita jaso zuen. Honi esker, 350.000 pezeta eta urtebeteko epean idatzitako liburua argitaratzeko aukera lortu zuen Jasonek



Jose Antonio Arrillagak San Migeleko Artzai Txakur Txapelketa irabazi zuen, irailaren 25ean, "Txiki" txakurrari esker. Guztira 8 artzaik hartu zuten parte eta 96 puntu eskuratu ondoren, Jose Antonio Anillaga eta "Txiki" txakurra izan ziren irabazleak.

Roberto Garcia margolariak bere koadroak jarri zituen ikusgai Kultur Etxean. Guztira 30 koadro inguru erakutsi zituen gaur egun Deban bizi den elgoibartar honek.





Oier eta Arkaitz Balizola Zeanurin jokatu zen Euskadiko Trikiti Txapelketako finalean garaile atera ziren, beste bost bikote lehialcideen aurretik. Iaz, Euskadiko Txapelketa honetan bertan bigarren egin zuten.


GoRBEA taberna
Jai zoriontsuak!
Santa Ana, 10 • Tel: 943 74 05 80

Dori I TRDAITEGIA
ior-iome 641(0/1
APARTEKO PRODUKTUAK
Errosario, 29 • Tel. 943 74 11 92

PREZISIO MUNDU BAT
TALLERES
MYL S.A.

orion eta Cdrie i]erri:§.12.1
Mendarozabal industrialdea,2-3 - 20850 MENDARO
Tel. 943 75 70 03



# URR1A
## URRIA

EAJ, EH eta EA alderdiek Udal Gobernurako akordioa sinatu zuten urriaren 28an. Akordio honen bidez, hint alderdi abertzaleek gobematuko dute Udala legegintzaldi honetan. Hainbat urtetan kanpoan egon eta gero, EH alderdia Elgoibarko Udaleko agintean sartu zen hitzatmen honen bitartez.



UNCETA enpresak 125 urte bete zituen urriaren 11n. Juan Pedro Uncetak Eibarren sortu zuen enpresa baina duela 10 urte inguru, leku falta zela-eta, Elgoibarren finkatu zen eta bertan dago enpresaren egoitza nagusia. 4 belaunaldi benutcluago, Ricardo Garate eta Pedro Unceta dira *Uncetako* arduradun nagusiak. Gaur egun, industriarako erramintak erosten eta saltzen ditu enpresa honek eta 40.000 produkturekin osatutako salmenta katalogoa dauka.





pjrnele

OJMAR S.A. enpresaren proiektu batek irabazi zuen X. Toribio Etxebarria Enpresa Saria. Saria, sormena eta eraberrikuntza teknologikoa atalean lortu zuen Elgoibarko enpresa honek, giltzen ordez memoriadon txartelak erabiltzeko proiektuari esker hain zuzen ere. 9,5 milioi pezeta eskuratu zituen *Opnar S.A.-k* eta, behar duen garapen teknologikoa eta aholkularitza jasoko ditu.


MEKANIZATUAK
kir gigib dysi
1111, 2111•1 111
MEKANIZATU HAUNDIAK
LfIN BEREZIRK
153 Posta kutxatila
lbaitarte kalea, 2
Tel. 943 74 12 97 - 74 06 64
Faxa 943 74 43 21

Zorionak eta Urte Berri On!
foto azkue
San Bartolome 26, Tel. 943 74 08 48

PUB
Elgoibar

Urte Berri On!
San Frantzisko, 21
Tel.: 943 74 26 52




# PROTAGON ISTAK

J Txandakako Injinerutzako lehenengo promozioko ikasleak graduatu ziren *Makina Erraminta histitutuan.* Ikastetxe honek estreinakoz antolatu zituen enpresen neurrira injineruak sortzeko ikasketa hauek. 30 ikaslek eskuratu zuten diploma.

J154 elgoibartarrek eman zuten izena euskara ikasteko Elgoibarko bi euskaltegietan, Udal Euskaltegian eta AEKn. Horrela, azken urteetako beherakada etenaz, matrikulazio kopuruak gorantz egin zuen.

3 Euskal Herriko hainbat argazkilari elkarte, Elgoibarren bildu ziren urriaren 2an. "Topaketak" izenburupean, 2 mahainguru, 2 hitzaldi, 2 ikusentzunezko eta 2 erakusketa egin ziren Euskal Herriko Argazkilari Elkarteak antolatuta.



Karlos Balseiro kantariak "Kubanakhan" diskoa argitaratu zuen CD formatoan. Karlosek berak ekoiztutako lan honetan, bere hamar kanta eta Lone Star talde kataluiniarraren bertsio bat bildu ditu.



Ifiaki Perez Armendiak Zaragozako ipuin lehiaketan lehen saria eskuratu zuen. Idazle elgoibartarrak "Ya no lo siento" izenburuko ipuina aurkeztu zuen, Che Guevararen azken uneak kontatzen dituen fikziozko narrazioa. 250.000 pezeta jaso zituen sari bezala Iñakik eta horrez gain, ipuina liburu batean argitaratuko dute.



Jose Mari Arakistainek *Haundi* futbol taldearen entrenatzaile kargua hartu zuen. Klub Deportiboa eta Txomin Arkotxa adostasunera heldu ostean, entrenatzaile ondarrutarrak kargua utzi zuen, eta elgoibartarra bere lekua betetzen ari da harez geroztik.



Jose Mari Fernandezek San Pedroko igoeraren errekorra hautsi zuen. Urriaren 12an, San Pedrorako igoeraren 8. edizioa jokatu zen. Bertan 61 txirrindularik hartu zuten parte, tartean 26 elgoibartar. Eta probaren bukaeran, Susok, garaipena lortzeaz gain, lehendik ezarrita zegoen marka ondu zuen, 13 minutu eta 50 segunduko denborarekin.


API 254
ERRETXINDI
Inmobiliaria Agentzia
Errosario, 25 943 7 4 4 3 58

Kide
ILEAPAINDEGIA
San Frantzisko, 40 - 3B
943 74 00 69

11418 Bvya dial
San Bartolome. 21 • Tel: 943 74 01 91

# AZAROA

## AZARCDA





Mikel Mberdi, Inazio Iriondo eta Iñaki Jaio Elgoibarko presoek, 15 urte bete zituzten kartzelan azaroaren 27an. Hori dela-eta, ekintza ugari izan ziren astebukaera horretan, tartean presoen senideei omenaldia eta Benito Lertxundiren kontzertu arrakastatsua. Bai Iriaki Jaiok eta baita Mikel Alberdik ere, zigorraren hiru laurdenak beteta dituzte eta kalean egon beharko lukete. Inazio Iriondok, aldiz, urte erdi barru beteko ditu zigorraren hiru laurdenak.





Txarriduna jatetxeak 50 urte bete zituen azaroaren 28an. Pedro Urain eta Fermina Arakistain senar-emazteek. 1949an ireki zuten Madalan kokatuta dagoen ostatu ezaguna. 50 urte hauetan, herriko ostatu bakarrenetakoa izanik, makina bat izan dira bertan gaua pasatu dutenak, tartean baita bezero ospetsu mordoa ere.

r
i ṅonuo TABERNA
Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan
Pedro Muguruza, 2• Tel: 943 74 00 15

E ko r *.
Aholkularitza Juridikoa
& Ekonomikoa
Mendarozabal Industnaldea z/2
Taleko sotairua 2B
Tel.: 943 75 52 24 • Faxa: 943 75 52 32
20850 Menclar0
lei1,104.4 e14 1113z $04,1. 04.!
• Abokatu zerbitzuak
• Kontabilitatea
• Nominak
• Aseguru Sozialak

• .7~,zio w~tadatz ellusjat eskokt •
*Inazio Bereziartua Musika Eskolak Gabon jaiak kantua, musika eta dantza lagun dituzula pasa ditzazula opa dizu.*

# PROTAGONISTAK

BARREN-ek 300. zenbakia argitaratu zuen. 1992ko abenduaren 24an, sortu zenetik, astero irten da astekaria Elgoibarko berri emateko eta 7 urteren ostean, 300. alea betetzera heldu da.

❑ Metalezko, plastikozko eta brikezko ontziak birziklatzeko kontenedoreak jarri ziren heniko kaleetan. Guztim, hori-laranjakoloreko **16** ontzi ipini zituen Mankomunitateak eta lehendik zeuden beste koloreetako kontenedoreei batu zitzaizkien.

❑ Udalak Saharako herriari 385.000 pezetako laguntza eman zion. Hasierako asmoa, ume saharaniar batzuk udan Elgoibarrera ekartzea bazen ere, ezin izan zen hasierako helburua bete. Hori dela-eta, Udalak dirua zuzenean Saharako herriari ematea erabaki zuen.

❑ Zarta Elgoibarko Arkulari Elkartea sortu zen. 12 kidek osatu zuten taldea eta Ramon Blanco "Txuri" izendatu zuten lehendakari.

❑ Inoiz baino elgoibartar gehiagok hartu zuen parte Behobia-Donostia lasterketan. 75 elgoibartarrek eta 3 mendarotarrek bukatu zuten 20 kilometroko proba eta herrikoen arteko denbontrik onena Martin Dominguezek egin zuen (1:12:47).

**O** *Batera* platafonna sortu zen euskal presoen eskubideak defendatzeko. Plataforma horren barnean alderdi politikoak (EAJ, EH eta EA), katuak (ELA eta LAB) eta arlo ezberdinetako taldeak (Errotatxo, Elgoibarko Gazte Asanblada, Elkani...) eta pertsonak daude.



**Edu Arrillaga** argazkilari elgoibartarrak Caja Madrid banketxearen Estatuko II. Argazki sariketan ohorezko aipamena jaso zuen. Saria, Veterinarios Sin Fronteras (VSF) Gobernuz Kanpoko Erakundeak Guatemalan eta Bolivian egindako lanari bumz ateratako argazki batzuei esker lortu zuen Arrillagak.

**Ricardo Gorriti, Txomin Mujika** eta **Bittor Zubiaurre** Elgoibarko dultzaineroek, Julian Romano dultzainero nafarraren omenezko diskoan hartu zuten parte. Horrez gain, lehenago, "Yoyes" pelikularen soinu bandan dultzaina doinuak sartu zituzten eta aurretik Espainiar Estatuko musikak biltzen zituen disko batean beste pieza batzuk grabatu zituzten.



**Dani Arenas** ehiztariak Gipuzkoako Ehiza Xeheko Txapelketa irabazi zuen. Txapelketa Arabako Santa Cruz del Castillo herriko Coto el Castillo ehiza banutian jokatu zen eta "Lur" txakurraren laguntzaz, 5 eper eta 2 faisai bota ostean lortu zuen elgoibartarrak garaipena.



**Egoitz Morak** Espainiako Judo Txapelketa irabazi zuen 90 kg.tik beherako kategorian. Judoka elgoibartamak Ruben Juanto nafarra garaitu zuen finalean eta horrela Jubenil mailako Estatuko txapelduna izatea lortu zuen, aurreko bi aldietan lortu ezinik gelditu ondoren.

**Aitor Garitagoitia** ehiztariak Gipuzkoako Oilagor Txapelketa eskuratu zuen azaroaren 20an. Aitorrek oilagor bat ehizatzea lortu zuen eta erakutsi zuen azkartasun eta punteria onak eman zion txapela beste 18 lehiakideak garaituz.

Pirx4n nulbsitzvaX

GABON JAI ZORIONTSUAK eta URTE BERRI ON!

Elgoibar

# ABENDUA

## ABENDUA



**300** lagun inguru elkartu ziren abenduaren 3an, bakearen aldeko kontzentrazioan, Plaza Handian. Juan Jose Ibarretxe, Euskal Autonomi Erkidegoko lehendakariaren deialdiari enunzunez, "Bakea behar dugu" lelopean kontzentrazioak egin ziren herri askotan eta Elgoibarren jende kopuru handia bildu zen Plaza Handian. Deialdiak alderdi abertzale guztien babesa eduki zuen eta hauetako ordezkariak ere izan ziren bilkuran.



*Haritz Euskal Dantzari Taldeak* Elgoibarko dantzei buruzko liburua kaleratu zuen. Duela lau mendetik honako gure dantzen berri ematen du "Elgoibar dantzan" Iiburuak. Proiektuaren aurrekontua 4 milioi pezetakoa izan zen eta erdi bana finantzatu zuten Udaleko Kultura Sailak eta Danobat enpresak. Liburuaren 1.500 ale argitaratu ziren, 2.000 pezetako prezioan.







# PROTAGONISTAK

❑ Aurtengo abenduaren 17an, unebete bete zen Makina Erremintaren Museoa ireki zela. Tarte hon¯etan, Elgoibarko museo honek 2.200 bisitari eduki ditu. Elgoibarkoa, Euskal Hen¯ian dagoen era honetako museo bakarra da.

0 Abenduko hirugarren astean, sei ikaslek eta bi irakaslek gose greba egin zuten Mekanikan, euskal preso politikoen gose grebarekin bat egiteko. Lau egunetan egon ziren grebalariak ezer jan gabe presoen borrokarekin eikartasuna erakusteko.

Hamaika Literaren bigarren alea atera zuen Urruzuno Literatur Taldeak. Batez ere, poesiazko lanak argitaratu zituzten gazte literatuaaleek beraien aldizkariaren bigarren zenbakian.



Juan Karlos Marcosek, Pello Ansola ordezkatu zuen Elgoibarko Udalean. Markosek abenduaren 3ko plenoan zinegotzi kargua hartu zuen ofizialki. Horrela, EHko alderdikideak Pello Ansolak utzitako lekua bete zuen, hark zinegotzi izateari utzi ondoren.



Luziano Ruiz Poveda, margolari elgoibartarrak, bere azken koadroak erakutsi zituen Kultur Etxean. Erakusketa hau, Carrneni, bere ernazte zenari, eskaini zion Luzianok. Berarekin batera, bere semeak, Miguel Ruiz Povedak ere jarri zituen ikusgai margolanak Elgoibarren.



Andres Elizondok bigarren saria lortu zuen Lekeitioko Zine eta Bideo Jaialdian. Elizondo "amateur mailan, sormen atalean saritu zuten animazio lan bati esker eta 35.000 pezeta jaso zituen.

Virginia Senosianek *Kutxaren* ikasketa amaierako sari bat jaso zuen. Virginia, nota onenak ateratzeagatik Gipuzkoan saritu zituzten 22 ikasleetako bat izan zen.


**KEMEN** Belardenda

*TRATAMENDU INTEGRALAK:*

*SHIATSUA, KINESIOLOGIA, PROGRAMAZIO NEUROLINGUISTIKOA, IRIDIOLOGIA," MASAJEA ETA REIKI. YOGA ESKOLA. ELIKAGAI BIOLOGIKOAK.*

*14.44,1 '4234.44e, izz0404,4*

Eskaiguzu behar duzun informazioa. Profesionakak gara

San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31 • ELGOIBARI






IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.

ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABEI

qam,4 opitia ur't Volet4 tozdeen **16 weitelu.**

Tel: 943 74 10 11

# "Elgoibar dantzan" liburua plazaratu du *Haritz* Euskal Dantzari Taldeak

## Argitalpenak azken lau mendeetako Elgoibarko dantza tradizioa jasotzen du

Joan zen astelehenean, abenduaren 20an, "Elgoibar dantzan" liburua aurkeztu zuen Haritz Euskal Dantzari Taldeak. Udaletxeko Pleno Aretoan izan zen aurkezpen ekitaldian liburuaren egileak Koldo Lizarralde, Oier Araokrza eta Pello Anieta, Jose Inazio Sarasua (*Haritzeko* zuzendaria) egon ziren. Beraiekin batera liburuko argazki asko utzi dituzten, Julian Azkue eta Jesus Mari Sarasua, Elgoibarko alkatea Gillermo Garate eta *Danabat* enpresako ordezkaria, Ales Anieta, egon ziren. Izan ere, Elgoibarko dantza tradizioaren berri jasotzen duen liburu hau Udalaren eta *Danobat* enpresaren laguntza ekonornikoari esker kaleratu da. Liburua dagoeneko kalean dago eta 2.000 pta.ren truke eskura daiteke. Liburu honen argitarapenarekin Haritzen aurtengo ekitaldiak bukatu egin dira.



*Liburu honen argitalpenarekin bukatu egiten dira Haritz Euskal Dantzari Taldearen aurtengo ekintzak.*

Azken uneetan Elgoibarri bumz zenbait liburu argitaratu dira eta orain beste batek ikusi du argia: "Elgoibar dantzan" izenburukoak, hain zuzen ere. Liburu hau, ordea, ez da besteak bezalakoa. Alde batetik, talde Ianaren fruitua delako eta bestetik, argazki kopuru haundia daukalako. Guztira 180 argazki baino gehiago aukeratu dira *Haritzen* artxibotik, bai koloretakoak eta baita txuribeltzekoak ere. Liburua cuskaraz argi taratu da baina azken orrialdeetan gaztelerazko itzulpena dauka.

Orden kronologikoari jarraituz, dantzaren eta txistuaren 400 urtetako historia biltzen du lan honek, hiru garaitan banatuta. Egileetako batek, Pello Arrietak, XVI. mende bukaeratik XX. mendeko Gerra Zibilaren arteko garaia aztertu du. Jose Inazio Sarasuak, "Elgoibar Dantzan" proiektuaren zuzendariak, Gerra Zibiletik *Haritz* Taldearen sorrerara arte, 1973. urtera arteko garaia jorratu du. Oier Araolazak, azken 25 urteei bttruz idatzi du. Tarte horrek *Haritz* Euskal Dantzari Taldearen urteekin koinziditzen du, Haritzek 25 urte baititu. Azkenik, Koldo Lizarraldek Elgoibarren dantzatutako ezpata dantzei buruz idatzi du, eta beste herrietan dantzatutakoekin dauden antzekotasunak eta ezberdintasunak jaso ditu. Horrez gain XVI. mendetik gaur egun arteko Elgoibarko txistularien historiaren berri ere ematen du atal batean.

### • 38 eigodiartar ezagunek presoak euskallierriratzeko agiria sinatu dute

38 elgoibartarrek euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko agiria sinatu dute. Euskal presoak Euskal Herrira plataformak kanpaina bat hasi du presoen euskalherriratzea eta Elgoibarko presoen askapena eskatzeko, hauek zigorraren hiru laurdenak beteta dituzteIaeta. Kanpaina horren lehenengo ekintza herriko pertsona ezagunen sinadura batzea izan da. Hainbat famaturekin hitz egin ostean 38 lagunen sinadurak Iortu dituzte. Kanpaina ekintza entzutetsu honekin hasi bada ere, urtarrikan segida izango du. Orduan gainontzeko elgoibartarren artean sinadura bilketa egingo da.

# Juan Luis Mugerza elgoibartarrak "Lehengo aldizu liburua kaleratu du

## Nerabe baten lehen harreman sexuala kontatzen du eleberrian




**Tuan** Luis Mugerza 45 urteko elgoibartarrak J bere lehen liburua kaleratu du. Juan Luisen liburuaren izena "Lehengo aldiz" da, eta Desele De Brouwer argitaletxeak Ipotxak eta Erraldoiak saaren barruan argitaratu du. 14 urtetik gorako gazteei zuzendutako liburua da, "nerabezaroan izaten diren lehenengo harreman sexualek sortzen dituzten kezkak eta beldurrak azaltzen ditut. Irakaslea naiz Getxon, eta behin ikasle batek maitasuna egitea nahi zuela aipatu zidan. Bere lehenengo aldia zela-eta, kezkatuta zegoen, eta hortik atera nuen liburua idazteko ideia". Liburu bat idaztea lan neketsua iruditu zaiola aipatu digu Juan Luisek, "ez daukat nire burua idazletzat, baina probatzea nahi nuen eta kosta bazait ere gustura geratu naiz azken emaitzarekin".



## Parroldako jalotra Itusgal dago Lelur-Ederren urtarrilaren 17ra arte

Joan zen asteartean, abenduaren 2Iean, Parrokiako jaiorzaren inaugurazio ekitaldia egin zen Leku-Ederreko lokalean. Beraz, asteazkenaz geroztik ikusgai dago urtero prestatzen duten jaiotza dotorea. Ordutegia honakoa da: astegunetan 17:30etik 20:30era. Jai egunetan eta bezperetan goizez 10:30etik 13:30era eta arratsaldez 17:30etik 20:30era. Gabon Zahar egunean, egun berezia denez, atsedenik gabe zabalduko dute goizeko 9:00etatik gaueko 21:00etara. Jaiotza urtarrilaren 17ra arte ikusteko aukera izango da. Bestalde, igandean, abenduaren 19an, Parrokiako katekesiak antolatutako jaiotzen lehiaketa egin zen. Bertan, lehenengo saria Jonatan Martinek, Igor Estebezek eta Jon Perez-Cortesek egindako jaiotzak irabirzi zuen. 11 lehiakideen jaiotzak Leku-Ederreko parkean, Rikardo Paz-en lokalean daude ikusgai eta bertatik urtarrilaren 7an, arratsaldeko 17:OOetatik 18:00etara jaso behar dituzte egileek.



## Egañak, Uzasok„ Irazuk eta Lijianbiok bertso saio dotorea eskaini zuten Herriko Antzokian

Bertso saio ederra gozatu ahal izan zuten joan zen ostiralean, hilaren 17an, Herriko Antzokira joan zirenek. Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Jesus Mari Irazu eta Maialen Lujanbio izan ziren bertsotan Elgoibarko Izarrak urtero Gabon jaien bueltan antolatzen duen jaialdian. Tarteka bertso ale ederrak entzun ahal izan ziren eta amaieran gustura irten ziren bertara inguratu ziren 150 lagunak. Datek hala aginduta, aurten beste urtetan baino lehenago antolatu du Elgoibarko Izarrak bertso saioa

## • Ilanialui Uteraw' literabr aklzkariaren bigarren zenbalda atera du UPPIRINIO Taldeak

"Hamaika Litera" literatur aldizkariaren bigarren zenbakia kaleratu du Urruzuno Literatur Taldeak. Hasiera batean lehenago argitaratzeko asmoa bazeukaten ere, azkenean, urtea bukatu aurretik atera dute ale hau. Lehenengo zenbakia Elgoibarko etxe guztietara heldu zen arren, oraingo honetan tirada askoz txikiagoa izan da, 500 alekoa, hain zuzen ere. "Hamailca Litera"ren ale berria harpidedunek etxean jaso dute baina honez gain, taberna batzuetan eta ikastetxeetan ere laga dute aldizkaria, gazte literaturzaleek nahi duenak irakurtzeko.

## • Ongarri The Mubak bkm pelladako zidea antolatu du Gabonetarako

Ongarrik, Elgoibarko tabernarien laguntzarekin, pelikulen ziklo txiki bat antolatu du "Gabonetako 3 gau zinean" izenburupean. Horrela, datorren astean EEBBetako zine industriaren hiru gidoilari eta aldi berean zuzendariren azken pelikulak eskainiko dituzte. Hiru filmeak hiru egunetan jarraian emango dituzte gaueko 22:15ean. Ziklo berezi honekin, 011-garri Zine Klubak, Udaleko Kultura Sailarekin sinatuta zeukan aurreko akordioari amaiera emango dio, izan ere, sinatu duten hitzarmen berria urterriletik aurrera sartuko da indarrean. Asteartean, abenduaren 28an, "eXistenr filmea emango dute, David Cronenberg-ena. "eXistenrek aurtengo Berlingo Zinemaldiko Zilarrezko Artza bereganatu zuen. Asteazkenean, abenduaren 29an, Lawrence Kasdanen ("Gran Canyon", "El turista accidental", "Fuego en el cuerpo") "Mumford" ikusi ahal izango da. Pelikula honek aurtengo Donostiako Zinemaldia inauguratu zuen. Azkenik, ostegunean, abenduaren 30ean, Spike Lee-ren ("Haz lo que debas", "Malcolm X"...) "El verano de Sam" eskainiko dute.



## 8 lagunek gose greba egin dute Mekanikan presoen eskariekin bat egiteko

6 ikaslek eta 2 irakaslek gose greba egin zuten joan zen astean Mekanikan euskaI preso politikoen gose grebarekin bat egiteko. Lau egunetan egon ziren grebalariak barauraldian presoekin elkartasuna erakusteko. Lau egunen ostean, 30 bat ikaslek manifestazioa egin zuten herriko kaleetan. Une batez, Kultur Etxe ondoan pankarta atzean kontzentratuta egon ziren eta momentu hori jasotzen du argazkiak.






Ana Arakistain

Ana Arakistain elgoibartarrak 36 urte ditu. Duela 15 urte, Madrilen bizi zen osaba bat zaintzera joan zen gaixorik jarri zela-eta. 3 hilabete pasatzera joan zen arren, senargaia topatu eta gaur egun Madrilen bizi da bere senarra eta bi seme gaztetxoekin batera. "San Lorentzoko Etxebenri baserritxik Madril moduko hiri handi batera jutia kanbixo handixa izan zan. Lehenengo 6 hilabetietan ezin izan naban etxera bisitarik ein, eta oso gogorra in jatan hemengo bizimodura moldatzia, baina azkenerako danera ohitzen zera. Madrilen ixa inor ez da bertakua eta kanpotarrak ondo onartzen ditxun hirixa da. Besta1de, trafikua eta zaratia gogaikarrixak izan arren, parke, museo eta edozer itxeko aukera asko daude. Hori bai, danalc estresauta bizi diala ematen dau, eta norbera ere kontagiau itxen da prisaka dabilen hainbeste jende ikustian". Anak aitortu digu sarritan etortzen dela Elgoibarrera, "Gabonetan eta beste jai batzutan familixakuak bisitatziaz gain, Udan bi hilabete pasatzen ditxut. Batez ere, kostaldia bisitatzeko aprobetxatzen dot uda, Madrilen faltan somatzen det-eta. Mendirik ere ez dakagu gertu, eta nere ilusiva egunen batian Elgoibarrera bueltau eta baserrixan bizitzia da. Nere semeek ere ederto pasatzen dabe baserrixa bisitatzen dogunian". Semeek euskara ikas dezaten ere saiatzen dela aipatu digu, "inoiz Euskal Henira bueltatzia nahi badabe, lagungarrixa izango litzake. Momentuz, ulertzeko gauza dia eta hemengo Euskal Etxera ere eruaten ditxut".

VIAJES BIDPIAK
**BILERO EXPZESS**
**bidaia agentziak**
**babestutako atala**
Foruen enparantza, 3
Tel.: 943 74 39 1 2

# G O G O R A T U Z

## Fulgencio Barrutia Aristondo

## †1905-1984†



- 1905eko urtarrilaren 16an jaio zen Errosarioko Amabirginaren kalean. Bost anai-arreba izan ziren, bera zaharrena.
- Mutikotan, eskola publikoetan egin zituen ikasketak eta garai hartan ohizkoa zen bezala, Goiko Errotako presan igerian, esku pilotan, futbolean... aritzen zen lagunekin jolasean.
- 11 urte zituela, aitarekin hasi zen lanean. Honek Errosario kalean zuen lantegian. Ondoren, eskopetak egiten aritu zen "Pedro Loiola"nean. "Gabilondo y Cia"n ere egin zuen lan, eta azkenik, "Sigma"n jubilatu arte. San Luis Gonzaga kongregaziokoa ere izan zen.
- Sarritan joaten zen lagunekin Azkubeko futbol zelaira Elgoibar F.B.C. taldea animatzera. Soldadutza marinan egitetik, libratu egin zen.
- 1929an ezkondu zen Parrokiako kaperan, Mendaroko Pepita Urretarekin. 5 seme-alaba izan zituen: Esther, Belen, Consuelo, Jose Mari eta Amaia. Suhinak eta erraina, berriz, Jesus Suarez, Luis Maria Ruiz, Satur Garate, Kontxi Zaldibar eta Manolo Esnaola.
- 1936ko gerratean ez zen frontean egon, baina hasieran preso hartu, epaitu eta hiltzera kondenatu zuten. Gero, bere pena, hil arteko kartzela-zigorrarengatik ordezkatu zuten. Dueso, Cadiz eta Larrinagako kartzeletan hainbat denbora eginda, Frantziara eraman zuten eta une latzak eta gogorrak pasatuta etoni zen herrira, munduko gerraren hasieran.
- Fulgencio gizon irekia, jatorra eta alaia zen eta familia ederki hazita, ongi bizi izan zen. "Esan Baietz" koadrila umoretsukoa zen eta gaur egun "Bar Gabi" dagoen lekuan zegoen "Cafe Izeta"ko bezeroak ziren.
- Bere zaletasunik gogokoenak, euskal kantak, mendian ibiltzea eta kamamila eta perretxikuak batzea ziren. Elgoibartar ezaguna, beti irribarrea ahoan zuena. Lagun artekoa, sinesmenduna eta familia girokoa zen.
- 1984ko maiatzaren 25ean hil zen 79 urte zituela.

Juanito Gorostiza




Pedro Muguruza, 5
Tei: 943 74 08 06
20870 ELGOIBAR



*PEDRO PEREZ BERISTAIN*
KOIVILINITATEAK eta FATXADAK
BERRIZTATZEAK • PINTAKETA
San Roke, 30 behea.
1r 943 74 36 52 - 74 27 89

**ZURICH**
ASEGURUAK

**BASURCO**
Inn API-368




Deba kalea, 2 behea • 20870 ELGOIBAR ° Tel: 943 74 80 13 • Faxa: 943 74 81 35

*brind 110 voth hasi 111diuhht blrria!*

# ZELETA
## BARAZKIAK

O7W,4/9//774 7770/27(7#4/4
(4; /7,4ffrf/ 7,4

*Kalitatezko produktuak ortutik mahaira zuzenean*

*Urte Berri On!*

**ZELETA BASERRIA** • San Migel auzoa • ELGOIBAR

# GREMIOEN GIDA

*g,

CjjIti1 6:11L.511J-zu, deitu ! ☎ 943 74 37 04

goi 4,4 2.tyi

## AROZTEGIAK

**BIENA**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
71 **943 74 31 16**

**GARCIA**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
7" **943 74 32 38**

**LODOSO**
Leihoak
Ermuaranbide, 16
°Ir **943 74 34 90**

**SORALUZE**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
'n* **943 74 36 34**

**ULAZIA**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
**943 74 05 47**

**ZABALA**
Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
*Zr **943 74 03 96**

## ZCD TH2U11C

**GLAS CONTROL S.L.**
Inpermeabilizazioak
Olaso 27, 47. pabiloia
**z* 943 74 30 94**

## ITURGINTZA

**ANGEL**
Santa Ana, 5
**u 943 74 17 61**
**689 04 92 06**

**JAVI**
Erretxindi, 1
**608 77 29 32**

**JUAN CARLOS S.L.**
Urasandi, 59-61
z' **943 74 34 87**

**ONGI**
Urasandi, 8
**943 74 10 82**

**PAGOAGA**
San Antolin, 13
17 **943 74 02 79**

**TELLABIDE**
Azpilgoeta, 19 **MENDARO**
**x 943 75 50 62**
"LT **607 75 50 62**

**ZALDUA**
Urasandi, 26
z" **943 74 05 30**

**ZUBIZARRETA**
Ubitarte, 5
**tr 943 74 07 89**
17 **608 14 30 40**

## 2EUJ)1111-71.Lv

**JESUS M[1] GABILONDO**
Ubitarte, 4-5 esk.
72 **943 74 45 99**

## PINTURAK

**IPINTZA**
Foruen enparantza, 4
'Er **943 74 04 40**
"Zr **607 74 04 40**

## EMIEInVIM\

**ARAMAR**
Morkaiko, 1
**v943 74 12 80**

**AZPELETA**
San Frantzisko, 51
z* **943 74 12 38**

**BETI ARGI**
Errosario, 6
**'a 943 74 16 44**

**URZELAI**
Santa Ana, 12-14
**z' 943 74 13 76**

## gg1/71[,

**ANTONIO MARKEZ**
Urasandi, 24
"a **943 74 34 18**

**ASKETA**
Osio, 7 **DEBA**
**629 34 43 89**

**JOSE LUIS MENDEZ**
Urasandi, 24
**943 74 29 87**
1T **689 58 47 23**

**IPINTZA**
Trenbide, 25
**z' 630 95 97 58«7**
**Faxa: 943 74 45 97**

# ZORIONAK!

# 9 koadrilak eman dute izena Gabonetako Koadrilen Arteko Txapelketan

## Talde irabazleak 40,000 pta. eskuratuko ditu

Astelehenean, hilak 27, Kirol Patronatuak antolatuta, Gabonetako IX. Koadrila Arteko Txapelketa hasiko da. Iaz bezala, izena eman duten koadrila kopuruak behera egin du, eta sekula baino talde gutxiago animatu dira parte hartzera, 9 hain zuzen ere. Dirudienez, talde irabazleak irabaziko dituen 40.000 pta.k ez dira nahikoa tenzio izan. Iaz 10 koadrila izan ziren eta duela 3 urte, beniz, 32 talde.

**Berrikuntzak**

Hala ere, Ramon Mugiea Patronatuko zuzendariak **azaldu** digunez, "txapelketarekin aurrera jarraitzea erabaki dugu aurten. Datorren urteari begira, berriz, agian berrikuntzak sartu edo txapelketaren egitura aldatu beharko dugu, kirolen bat baztertuz esaterako". Partehartzaileek 5 kiroletan nettrtuko dituzte indarrak: saskibaloian, areto futbolean, kmsean, txirrindularitzan eta palan. Kirol arloari dagokionez, iazko txapelclunak *Jendetxa* koadrilakoak izan ziren 105 puntu lortu ostean. Hauen atzetik *Nattinghan Prisa* koadrilakoak sailkatu ziren eta *Spartak Pitxotekoak* izan ziren hirugarrenak. Bestalde, aurten finalak ez dira Gabon Zahar egunean jokatuko, Gabon Zahar Feria dela-eta `Plazara Dantzara' ikuskizuna eskaintzea aurrikusita baitago Kiroldegian.

ir7

-'14/11111

k

-111

*Duela hiru urte 32 taldek hartu parte. Aurten, berriz, 9 talde besterik ez dira izango.*

### TXAPELKETAREN EGUTEGIA

| EGUNA | KIROLA | TOKIA |
|---|---|---|
| Hilak 27 | Krosa | Plaza Handian |
| Hilak 28 | Pala | Ikastolako frontoian |
| | Saskibaloia | Kiroldegian |
| Hilak 29 | Txirrindularitza | Kiroldegia-Erretxindi |
| | Saskibaloia. | Kiroldegian |
| | Areto Futbola. | Kiroldegian |
| Hilak 30 | Saskibaloia (finala) | Kiroldegian |
| | Areto Futbola (finala) | Kiroldegian |

## EMAITZAK

### Futbola

Amorebieta 1 - Haundi 1 (3. maila)
Elgoibar 0- Kilimon 1 (1. **erreg.)**
Elgoibar 0- Real Sociedad 2 **(Oho. inf.)**
Alaves 7 - Elgoibar 0 **(Jub. E.L.)**
Ilintza 0 - Elgoibar 6 **(Neskak)**
Soraluce 3- Pedrusko 1 **(1. erreg.)**

### Eskubaloia

Teknomeka Elg, 36 - Loyola **11 (Kad. mut.)**
Pneumax Elg. 22 -AlmenJakion 21 (Jub. mut.)
B.K.L-C.A.E 10 - Gaur Elg. 25 (Kad. mut.)
Basauri **18** - Pagoaga Elg. 20 **(Kad. nes.)**
**Basauri 13** - Uncela Elg. 27 **(Jub. nes.)**
C.D.B Leizaran 22 - I, M.H. Elg. 29 **(Sen. mut.)**
Aurrera de Woria 11 - I.M.S. Elg. **24 (Sen** nes.)

### Idarraga Kafeak 3. saria

**HAUNDIko jokalarl erregularrena 99/08**

| JOKALARIA | PUNTUAK |
|---|---|
| Aranberri | 29 |
| 2- Zulaika | 28 |
| 3- Castro ...... , | 25 |
| 4- Polo | 21 |
| 5- Alberdi | **14** |
| 6- Bravo | 13 |
| 7- Diaz | 13 |
| 8- G. Leonardo | 12 |
| 9- lbartuzea | 11 |
| 10- Loren | 10 |
| 11- Castino | **8** |
| 12- Guarroixena | **6** |
| 13- Baque | 6 |
| 14- Manolo Ramos | **4** |
| 15- Alcorta | **4** |
| 16- Txasio | **4** |
| 17- Caro | **4** |
| 18- Edu | 4 |
| 19- Ruiz | 2 |
| 20- Fernandez | 2 |

# Mario Gomez euskaldunak **irabazi** du nazioarteko **IX.** Xake Txapelketa

Aurtengo Nazioarteko Xake Txapelketako irabazlea Mario Gomez santurtziarra izan da. Abenduaren 13tik 2Iera bitartean jokatu zen txapelketa eta azken unera arte ez zen txapelduanren izena argitu. Oleg Korneev errusiarra izan zen txapeldunordea, baina Mariok adina puntu lortu zituen, 6 alegia. Hirugarren Vladimir Georgiev bulgariarra izan zen 5 punturekin. Garaipen honi esker, Mariok inaisu handi kategoria eskuratu du. Partida onak eta emozio handikoak ikusteko aukera izan da aurten, izan ere, espainiar Estatuko 3 edo 4 txapelketa onenetako bat da Elgoibarkoa eta partehartzaileak goi mailakoak dira.



*Desenpate sistemak erabaki zuen Mario Gomezen garaipena, bera eta Korneev puntutara berdinduta baitzeuden txapelketaren amaieran.*

## 24 ostirala

**19:00 UDAL MUSIKA BANDAren KALEJIRA**

## 25 larunbata

**22:15 ZINEA**
"El guerrero n° 13"

## 2G igandea

**19:00 ZINEA GAZTETXEAN**
"La naranja mecanica"
(S. Kubrik).

19:30-22:15 ZINEA
"El guerrero n° 13"

## 27 astelehena

10:00 GABONAK 99
Plaza Handian
Antolatzailea:
Atxutxiamaika B.T

22:15 ZINEA
"El guerrero n° 13"

## 28 asteartea

22:15 ZINE KLUBA
"eXistenZ"
(David Cronenberg)

## 29 asteazkena

22:15 ZINE KLUBA
"Mumford"
(L. Kasdan)

## 30 osteguna

**11:30 TAKOLO PIRRITX eta PORROTX PAILAZOAK**
Herriko Antzokian

**19:00 ZINEA GAZTETXEAN**
"Martin **H**".

**22:15 ZINE KLUBA**
"El verano de Sam"
(Spike Lee)

## 31 ostirala

**8:30 GABON ZAHAR FERIA**
Plaza Handian

**12:00 BURDUNTZIAN ERRETAKO TXAHAL PINTXOAK**
Antolatzailea: Elgoibarko Ikastola

13:00 SENIDEEN ENKARTELADA SAN ERANTZISKO ITURRIAN

13:30 **FRUTA, BARAZKI eta GAZTA** LEHIAKETAren SARI BANAKETA
Udaletxeko Areto Nagusian

16:30 TRIKITILARI ESKOLAkoen **KALEJIRA**

17:00 ⁴PLAZARA DANTZARA' IKUSKIZUNA
Foruen Plazan (Euria egiten badu, Kiroldegian)

19:00 **PARROKI** ABESBATZAren KALEJIRA

## 1 larunbata

19:30-22:15 ZINEA
"La lengua de las mariposas"

## 2 igandea

**19:30-22:15 ZINEA**
"La lengua de las mariposas"

## 3 astelehena

**22:15 ZINEA**
"La lengua de las mariposas"

## 4 asteartea

**20:00 ANTZERKIA**
Taldea: Taupada
Antzezlana: Mari Sorgin
Herriko Antzokian
Antolatzailea: Euskal Presoak Euskal Herrira plataforma

## 5 asteazkena

**17:30 JAIOTZA BIZIDUNA**
Plaza Handian

**18:00 ERREGEen KABALGATA**
Irteera Plaza Handitik
Antolatzailea: Katekistak

**22:00 SAN ANTON PILOTA TXAPELKETA**
Ikastolako Frontoian
Antolatzailea: Lagunak Pilota Eskola

## 6 osteguna

**10:00 UDAL BANDAren KALEJIRA**

**10:45 BANDAren EMANALDIA**
**San Lazaro egoitzan**

**12:30 BANDAren KONTZERTUA**
Herriko Antzokian

**11:30 HAURREN MEZA ERREGEEKIN**
Pan̈okian

**19:30-22:15 ZINEA**
"Terapia peligrosa"

## 7 ostirala

**22:00 SAN ANTON PILOTA TXAPELKETA**
Ikastolako frontoian

**22;15 ZINEA**
"Terapia peligrosa"

## 8 larunbata

**19:30-22:15 ZINEA**
"Terapia peligrosa"

## 9 igandea

**19:30-22:15 ZINEA**
"Terapia peligrosa"

## astele ena

**22:15 ZINEA**
"Terapia peligrosa"

## 14 ostirala

**22:00 SAN ANTON PILOTA TXAPELKETA**
Finalak
Ikastolako frontoian

**22:30 ANTZERKIA**
Taldea: Golden Apple Quartet
Antzezlana:
`Radio Golden'
Herriko Antzokian

## • Txahala burduntilan

Gabon Zahar egunean Ikastolakoek txahala erreko dute burduntzi erara. Aurtengoa, hirugarren aldia da Ikastolak ekitaldi hau antolatzen duena. Horretarako "Labela" duten harakinen laguntza edukiko dute. Eguerdiko 12:00etan hasiko dira txahal-pintxoak ernaten.

## • "Gabonak 99" kanpainake ekintzak, abenduaren 27an Atxuhdamalkarekin

"Gabonak 99" kanpainaren barnean, abenduaren 27an goizeko 10:00etan haurrak Atxutxiamaika begirale taldearekin elkartuko dira Plaza Handian. Dena dela, bilera ez da itxia eta izena eman ez duten umeak ere joan daitezke.

## • "Plazara dantzara" dantza ikuskizuna Gabon Zahar egunean

Gabon Zahar egunean, abenduaren 31n, "Plazara dantzara" dantza saioa izango da Foruen Plazan (euria egingo balu Kiroldegian). Parte hartuko dutenak honakoak izango dira: Herriko Inazio Bereziartua Musika Eskolako dantza ikasleak, Debako "Gure Kai Euskal Dantzari Taldea" eta Eibarko "Kezka Euskal Dantzari Taldea".

## • Udal Musika Bandaren kalejira eta Errege eguneko emanaldia

Udal Musika bandak kalejira egingo du gaur, abenduak 24, herriko kaleetan arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Kultur Etxearen parean eta Plaza Handian Gabon kantak eskainiko dituzte bandako musikariek. Aurtengoarekin, 115 urtez eusten dio Elgoibarko Bandak Gabon eguneko tradizio honi. Gaurkoaren ostean, urtarrilean joko dute berriz ere musikari elgoibartarrek, hilaren 6an, Errege egunean hain zuzen ere. Orduan kalejira egingo dute eta ondoren San Lazaro egoitzan emanaldia eskainiko dute. Beranduago, kontzertua izango da Herriko Antzokian eguerdiko 12:30ean. Honako egitaraua eskainiko dute: "El Graff Zepeling" martxa, Supperen "Flotte Bursche" obertura, Granados-en "Goyescas", Pablo Sorozabalen "Katiuska" eta J. Straussen "Chit-Chat" polka eta "Radewzky martxa"

## • "Kirola Euskaraz" ikastaroen 2. saioa, hilaren 27an hasiko da

Debarroko Udaletako Kirol eta Euskara Zerbitzuek "Kirola euskaraz" programaren barruan antolatutako ikastaroen 2. saioa, datorren astelehenean, hilaren 27an, hasiko da Elgoibarko Olaizaga Kiroldegian. Ikastaro hau dobainik da eta kirol monitoreei, entrenatzaileei, gestoreei eta abarrei zuzendurik dago. Helburua, kirol entrenamenduak eta gestioa hobetzea da. Astelehenean, hilaren 27an, goizeko 9:00etatik aurrera, hizkuntza kirolean, entrenamenduaren oinarriak, doping-a eta kirolarien dieta izango dira aztertuko diren gaiak. Abenduaren 28an, berriz, entrenamenduen oinarriak kirol legedia eta euskal selekzioa izango dira eztabaidagai goizeko 9:00etatik aurrera. Azkenik, hilaren 29an, kirola irakasteko modu ezberdinak eta Eskola Kirola aztertuko dira goizeko 9:00etatik 11:30era bitartean. Ondoren, Eskola Kirolaren inguruko mahaingurua hasiko da. Patxi Artaetxeberriak, Gimnasia Erritmilcoko Federazioko lehendakariak, eta 1. Kortabarriak, Errealeko futbolari ohiak hartuko dute parte mahainguman, beste,ak beste.

## TXANDAK

### FARMAZIAK

| | Egunez | Gauez |
|---|---|---|
| 25 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 26 | Yudego | Yudego |
| 27 | Zabaleta | Zabaleta |
| 28 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 29 | Escala | Escala |
| 30 | Bidasolo | Bidasolo |
| 31 | Yudego | Yudego |
| 1 | Yudego | Yudego |
| 2 | Fernandez | Fernandez |
| 3 | Yudego | Yudego |
| 4 | Zabaleta | Zabaleta |
| 5 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 6 | Bidasolo | Bidasolo |
| 7 | Bidasolo | Bidasolo |
| 8 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 9 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 10 | Fernandez | Fernandez |
| 11 | Yudego | Yudego |
| 12 | Zabaleta | Zabaleta |
| 13 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |

**ESCALA:** Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
**J. IGNACIO FERNANDEZ** Herriko enparantza 4, Garagarza.Tel: 943 75 61 42
**ZABALETA:** Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

### OKINDEGIA

**25 larunhata Fotero**
**26 Igandea Fotero**
**2 Igandea Eizagirre**
**6 osteguna Doña Mercedes**
**9 igandea Eizagirre**


**Gabon zoriontsuak eta Urte Berri On**

TXANKAKUA

Elgoibarko Merkatari eta Zerbitzu Elkarteak

**400.000 pta.**

Gabonetan Txankakua Elkarteko dendetan erosiz gero hiru **EROSKETA-TXEKE** eskuratu ahal izango dituzu.

1. **saria:** 325.000 pta.
2. **saria:** 50.000 pta.
3. **saria:** 25.000 pta.

### 2.000. urtea datorrela-eta

# Gabon Zahar gaua modu berezian ospatzeko asmoa al daukazu?



**ELENA SILVA**
**22 urte**
**Aerobikeko monitorea**

Nik urtero bezala ospatuko dut, etxean, familiarekin. Ez dut festa berezirik egingo. Niretzat urtea bukatu ahal izatea nahikoa da.



**AINHOA ANSOLA**
**25 urte, peoia**

Beti bezela, etxian afaldu eta gabian irtengo naiz goizaldera arte. Neuretzat, beste urte bat balitz bezela da. Inportantiena urtiari hasiera ona ematia da.



**JAVIER BELLOTA**
**21 urte, kamarereoa**

Tabernan lanean pasatuko dut. Ospakizunetarako denbora gutxi dudanez, Urtebeni egunean ospatu beharko dut. Beste urte bat gehiago da.



**ANA MARIA OLIVEIRA**
**36 urte, etxekoandrea**

Gurasoekin ospatuko dut, urte ben̈ia ondo hasi behar daeta. Aurreko urteetan bezala pasatuko dut, ez du inporta 2.000. urtean sartzeak.



**LUISA GOMEZ**
**30 urte, administratiboa**

Familiarekin ospatuko dut urtero bezala. Berdin pasatuko dut eta ez dut bidaia berezirik egingo. Mende aldaketarena, bidaiatzeko aitzakia da.



**SANTIAGO AGEA**
**47 urte, aurre-jubilatua**

Gurean, familia guztia biltzen da etxean eta bertan pasatzen dugu Gabon Zahar gaua. Baina ez dut an̈azoirik ikusten ezer berezirik egiteko.






&-rege Zezpera efa .r.reye yuneirao
MENUA
Aperiliboa
93averrilio oilasro-terrina
74aie-entsalacia harazielrfriyibteA"n
ganyrasiinoa ,piganiman
_93a4ailao-ilaXotrah' 6izleaithr-erafio,piperrajareA"th
7ralial-mczsaik ard; erara, 9oarniziocu
2:roirofaie zuriaren mouse izozhia andare--maiia/laren couts-rehin
5.000 pta + BEZa (anioa apark)
ABENDUAren 24tik
URTARRILAren 3ra ARTE
JATETXEA ITXITA
IZANGO DA
Gaio zwiairtsuai d'oliatotai itotiof/
Beiczusleyi liaserria
Tel. 943 74 31 02




ZEZEN-BIDE
AUTO-ESKOLA
Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak
GIDARIAK
GIDARIAK
ZEZEN-BIDE
Urte Berri On!
San Frantzisko, 43-1. - Tel: 943 74 27 20 - E1GOIBAR
Ego-gain, 2 behea (sarrera S. Andres
- Tel: 943 20 34 45 - EIBAR

# Prestakuntza Sistemak








- Hasierako Lanbide Heziketa
- Txandakako Enpresa Injinerutza
- Lanerako Prestakuntza
- Langileen Prestakuntza
- Irakasleen Prestakuntza
- Goi-Mailako Kudeaketa eta Zuzendaritza Tekniketan Prestakuntza: Gestio Eskola
- Laguntza Teknikoa nazioarteko eta bertako proiektuetan
- Zerbitzu Teknologikoak
- Hizkuntza Zerbitzuak: ILS

*"Ezberdintasun guztien gainetik beti izango da 'denbora-leku' bat bakearentzat".*

**OTEITZA**

*Gabon jai zoriontsuak guztioi!*

MAKINA
ERREMINTAREN
INSTITUTUA

AENOR
ER
Onartutako Enpresa
ER-0633/1/98

San Roke auzoa, 1• 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
4 41 32 • Faxa: 943 74 41 53. E-postaimh@fmh.es • http://www.fmh.es

**Elgoibarko EAJ-PNVk**

jai zoriontsuak opa dizkizue

elgoibartar guztioi






**Automoviles Lerun S.L.k** *Fordfccus Trend* 1.6 16v autoa eskaintzen dizu:100 ZP-ko aluminio-aleaziozko *Zetec* motorra • 3 ate Airbag-a txoferrak eta albokoak • Itxidura zentralizatua, kontrol remotoduna Kristal-igoigailu elektrikoak Inmobilizatzaile elektronikoa • Atzeko eserlekuen bizkarraldea toleskorra da asimetrikoki • Pintura metalizatua • Audio-ekipoaren kontrola bolantean • Atzeko suspentsio independentea daukan bakarra bere gaman *(Blade* kontrola).

**1.995.000 pta.** (*Prever* planabarne).

Informaziorako eta autoa probatzeko:

**Automoviles Lerun**

Deba kalea, 14

Tel.: 943 74 25 91 • Faxa: 943 74 36 49

**Ford Credit**